Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

2321

AGINDUA, 2010eko apirilaren 16koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartzen dituena.

Irailaren 23ko 161/2008 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan karrerako funtzionario izateko 2008. urteko enplegu publikoaren eskaintza onartu zuen. Dekretu horretan azaltzen dira hautaketa-prozesuen bidez bete beharreko plazak.

Horretarako, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak langileak hautatzeari buruz 23. artikuluan eta II. tituluaren IV. kapituluan ezartzen duenarekin bat etorriz, eta lege horretako 6.1.i) artikuluaren bidez emandako ahalmenez baliatuz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak onartzea. Prozesu horiek irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren (2008ko irailaren 30eko EHAAn argitaratua) ondorio dira eta oinarriak agindu honen I. eranskinean datoz.

Bigarren artikulua.– Oinarri hauen ondorioetarako kontuan hartuko diren hizkuntza-ziurtagiri eta -titulu baliokideak ezartzen dituen II. eranskina onartzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke organo horri, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

2321

ORDEN de 16 de abril de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para el ingreso como personal funcionario de carrera al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

El Decreto 161/2008, de 23 de septiembre, aprueba la oferta de empleo público de personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos para el año 2008, en la que se contienen las plazas que han de ser provistas mediante los correspondientes procesos selectivos.

A tal fin, de conformidad con lo establecido en el artículo 23 y en el Capítulo IV del Título II de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca sobre la selección de personal, y en virtud de las atribuciones conferidas en el artículo 6.1.i) de la citada Ley,

RESUELVO:

Artículo primero.– Aprobar las bases generales, que figuran como anexo I, de los procesos selectivos para el ingreso como personal funcionario de carrera al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, derivados del citado Decreto 161/2008, de 23 de septiembre (BOPV, 30 de septiembre de 2008).

Artículo segundo.– Aprobar el anexo II, en el que se determinan las certificaciones y títulos equivalentes de idiomas a efectos de estas bases.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden de la Consejera de Justicia y Administración Pública podrá interponerse, ante el mismo órgano, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o podrá interponerse, directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 16a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUEN OINARRI OROKORRAK

1.– Helburua.

1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidego eta eskaletako oinarri espezifikoetan agertzen diren plazak betetzeko arau orokorrak ezartzea da oinarri hauen helburua. Lehiaketa-oposizioa da erabiliko den hautaketa-sistema; hau da, hautaketa-probak eta merezimenduen balorazioa izango ditu.

1.2.– Bi txanda egongo dira: irekia eta barne-igoerakoa. Bakoitzak plaza-kopuru jakin bat gordeko du ezinduentzat. Hortaz, txanda bakoitzean bi modalitate daude: sarbide orokorra eta ezinduei gordetako sarbidea.

1.3.– Oinarri espezifikoetan zehazten da zenbat plaza aterako diren txanda bakoitzean eta zenbat gordeko diren ezinduentzat.

1.4.– Hautagairik ez dagoelako edo hautaketa-prozesuak gainditu dituenik ez dagoelako bete gabe gelditzen diren barne-igoerako plazak txanda irekiari gehituko zaizkio.

1.5.– Hautagairik ez dagoelako edo hautaketa-prozesuak gainditu dituenik ez dagoelako bete gabe gelditzen diren ezinduentzat gordetako plazak sarbide orokorrari gehituko zaizkio, bakoitza bere txandaren barruan. Alabaina, ezinduak enplegu publikoan sartzea eta haiek lanpostuak betetzea arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua betez, ezinduentzat gorde eta betetako plazek deialdian iragarritako plaza-kopuru osoaren % 3ko tasa gainditzen ez badute, bete gabe gelditutako plazak enplegu publikoaren hurrengo eskaintzako % 5eko kupoari gehituko zaizkio, baina betiere ehuneko hamarreko gehieneko muga gainditu gabe.

2.– Hautaketarako baldintza orokorrak.

ANEXO I

BASES GENERALES DE LOS PROCESOS SELECTIVOS PARA EL INGRESO COMO PERSONAL FUNCIONARIO DE CARRERA AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

1.– Objeto.

1.1.– El objeto de las presentes bases es establecer las normas generales para la provisión de las plazas ofertadas que se indicarán en las bases específicas correspondientes a cuerpos y escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El sistema de selección será el concurso-oposición, es decir, incluirá pruebas selectivas y valoración de méritos.

1.2.– Se contemplan dos turnos de acceso: libre y de promoción interna, en cada uno de los cuales se reserva un cupo de plazas para personas con discapacidad. Por tanto, en cada turno existen dos modalidades: el acceso general y el acceso reservado para personas con discapacidad.

1.3.– En las bases específicas se indicará el número de plazas convocadas en cada turno y las reservadas para personas con discapacidad.

1.4.– Las plazas reservadas a promoción interna que fueran declaradas desiertas, por falta de concurrencia o por no superación de los correspondientes procesos selectivos, se acumularán a las ofertadas en el turno libre.

1.5.– Asimismo, las plazas reservadas para personas con discapacidad que fueran declaradas desiertas, por falta de concurrencia o por no superación de los correspondientes procesos selectivos, se acumularán a las ofertadas en la modalidad de acceso general dentro de su respectivo turno. No obstante, si las plazas reservadas y cubiertas por personas con discapacidad no alcanzaran la tasa del 3% de las plazas convocadas, las plazas no cubiertas se acumularán al cupo del 5% de la oferta de empleo público siguiente, con un límite máximo del 10%, de acuerdo con el Real Decreto 2271/2004, de 3 de diciembre, por el que se regula el acceso al empleo público y la provisión de puestos de las personas con discapacidad.

2.– Condiciones generales de selección.

2.1.– Baldintzaren bat ezarrita duten lanpostuak betetzeko, hautagaiek, ezinbestez, baldintza horiek bete beharko dituzte.

2.2.– Epaimahaiak karrerako funtzionario izateko proposatzen duen gaindituen kopuruak ezin izango du deialdiko plaza-kopurua baino handiagoa izan, ondorengo kasuetan izan ezik:

a) Barne-igoerako txandan hautatutako pertsonek une horretan betetzen ari diren lanpostua esleitzeko eskatzen dutenean (plaza horiek ahalbidetzen badute eta, hortaz, ez bada enplegu publikoko plazarik hartzen). Horrelakorik gertatzen denean, aukera hori egin izan ez balute esleituko litzaizkiekeen plazak barne-igoerako txandan gainditu duten hurrengo pertsonei emango zaizkie, lehentasun-hurrenkerari jarraituz.

b) Hautatutako pertsonek izendatuak izan edo plazak jabetzan hartu baino lehen uko egiten diotenean lanpostuari, edo lanpostua jabetzan hartzeko unean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen dutenean. Hutsik uzten dituzten lanpostuak esleitu egingo dira. Horretarako, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak gainditu arren plazarik lortu ez dutenen zerrenda, hurrenkeraren arabera egina, eskatuko dio epaimahaiari.

3.– Enplegua eskuratu ahal izateko betekizunak.

3.1.– Baldintzak betetzeko datak.

Hautagaiek eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehenago bete beharko dituzte oinarri orokorretan eta espezifikoetan ezarritako betekizunak –9.1 oinarrian adierazitakoak izan ezik–, eta betekizun horiek betetzen jarraitu beharko dute lanpostua jabetzan hartzen duten arte.

3.2.– Noiz eta nola egiaztatu baldintzak betetzen direla.

Oinarri hauetako 10. atalak ezartzen du baldintzak noiz eta nola egiaztatu behar diren.

3.3.– Parte hartzeko baldintza orokorrak.

Iragarritako hautaprobetan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu dezakete, betiere

2.1.– Los puestos que tengan establecidos requisitos para su provisión no podrán ser provistos, en ningún caso, por aspirantes que no hubieran acreditado su cumplimiento.

2.2.– El Tribunal no podrá proponer el acceso a la condición de funcionaria o funcionario de carrera de un número superior de personas aprobadas al de plazas convocadas, excepto en los siguientes supuestos:

a) En caso de que las personas seleccionadas por el turno de promoción interna soliciten que se les adjudique destino en el puesto que vinieran desempeñando, siempre y cuando el puesto lo permita, y por tanto no consuman plazas de las incluidas en la oferta de empleo público. Cuando así ocurra se procederá a adjudicar las plazas que les hubieran correspondido de no realizar tal opción, a las siguientes personas aprobadas por el turno de promoción interna, en orden de prelación.

b) Cuando se produzcan renuncias de personas seleccionadas antes de su nombramiento o toma de posesión, o en caso de que en el momento de la toma de posesión soliciten excedencia sin derecho a reserva de puesto, se procederá a adjudicar las plazas que dejen vacantes. Para ello, la Consejera de Justicia y Administración Pública requerirá del Tribunal la relación ordenada de personas que habiendo aprobado, no obtuvieron plaza.

3.– Requisitos de acceso al empleo.

3.1.– Fechas del cumplimiento de requisitos.

Quienes aspiren a las plazas deberán reunir los requisitos previstos en las bases generales y específicas con anterioridad a la finalización del plazo para la presentación de solicitudes, salvo las excepciones previstas en la base 9.1, y deberán mantener su cumplimiento hasta efectuar la toma de posesión.

3.2.– El tiempo y la forma de acreditación de los requisitos.

El tiempo y la forma de acreditación de los requisitos se establecen en el apartado 10 de estas bases.

3.3.– Requisitos generales de participación.

Son requisitos para la admisión a las pruebas selectivas convocadas:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores y trabajadoras.

También podrán participar cónyuges de nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no medie separación de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que no se dé separación de derecho, sean

bikotea zuzenbidearen arabera bananduta ez badago eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere bikotearen kontura bizi badira.

b) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

c) Adinari dagokionez, 16 urte beteta eta 65 bete gabe izatea.

d) Diziplinako espediente bidez edozein herri-administrazioko zerbitzutik kenduta edo kanporatuta ez egotea, eta erabateko desgaikuntzarik edo desgaikuntza berezirik ez izatea enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Atzerriko izangaiek, bestalde, norberaren estatuko funtzio publikoan jardutea galarazten dien desgaikuntzarik edo baliokiderik ez dutela eta diziplinazko zigorrik edo zigor penalik ez dutela beren gain egiaztatu beharko dute.

e) Oinarri espezifikoetan eskatutako titulazioa izatea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

f) Indarrean dagoen araubidearen arabera, ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

g) Parte hartu nahi den kidego edo eskalako eskabidea jaso eta aztertzeagatik ordaindu beharreko tasa ordainduta izatea. Tasaren zenbatekoa oinarri espezifikoetan zehazten da.

h) Oinarri espezifikoetan eskatzen diren beste baldintza guztiak.

3.4.– Barne-igoerako txandan parte hartzeko baldintza espezifikoak.

Barne-igoerako txandan parte hartu ahal izateko, 3.3 oinarriak aipatzen dituen baldintzak betetzeaz gain, baldintza espezifiko hauek ere bete beharko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioa izatea, iritsi nahi den kidegoaren azpiko titulazio-talderik hurbilenekoa edo berberekoa izatea, eta egoera horretan bi urtetik gorako zerbitzualdia beterik izatea.

b) Hautagaia, dagoen kidegoan, egoera hauetako batean egotea: jarduneko zerbitzuan, baliokidean edo zerbitzu berezietan.

Txanda honetan parte hartzeko baldintzak betetzen ez badira, ofizioz, txanda irekira pasatuko da eskabidea.

estos descendientes menores de 21 años o mayores de dicha edad dependientes.

b) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y no padecer enfermedad o defecto físico ni psíquico que impida el desempeño de las correspondientes tareas.

c) Tener cumplidos 16 años y no haber alcanzado la edad de 65 años.

d) No estar en situación de separación o despido, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos. En caso de ser nacional de otro Estado, no sufrir inhabilitación o situación equivalente ni estar sometido o sometida a sanción disciplinaria o condena penal que impida en su Estado el acceso a la Función Pública.

e) Estar en posesión, o haber abonado los derechos para su expedición, de la titulación requerida, que se indicará en las correspondientes bases específicas. En el caso de titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

f) No incurrir en causa legal de incapacidad o incompatibilidad según la normativa vigente, dejando a salvo el derecho de opción que ésta le otorgue.

g) Haber satisfecho la tasa por recepción y examen de la solicitud correspondiente al cuerpo o escala al que concurra y cuyo importe se detallará en las correspondientes bases específicas.

h) Cualesquiera otros requisitos que se exijan en las bases específicas.

3.4.– Requisitos específicos de participación por el turno de promoción interna.

Quienes concurran a plazas de promoción interna, además de cumplir los requisitos de participación a los que se refiere la base 3.3, deberán cumplir los siguientes requisitos específicos:

a) Ser personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco del grupo de titulación inmediatamente inferior al del cuerpo al que se pretenda acceder o del mismo grupo y haber completado dos años de servicio en el cuerpo de procedencia con tal condición.

b) Hallarse en situación de servicio activo o asimilada o servicios especiales en el cuerpo de procedencia.

En el supuesto de incumplimiento de los requisitos para participar por este turno, se entenderá de oficio que la solicitud está presentada por el turno libre.

3.5.– Ezinduentzat gordetako modalitatean parte hartzeko baldintza espezifikoak.

Ezinduentzat gordetako plazen lehian sartu ahal izateko, 3.3 oinarriak aipatzen dituen baldintzak betetzeaz gain, beste hauek ere bete beharko dira:

a) Eskabideak aurkezteko epea bukatzeko egunean foru-aldundietako organo eskudunek edo Imsersok % 33ko edo hortik gorako elbarritasuna aitortua izatea.

b) Ezintasuna bera eta ezintasunaren eta lanpostuko zereginak betetzeko gaitasunaren arteko bateragarritasuna egiaztatzea.

6. oinarrian adierazitako helbide elektronikoan ikus daiteke kidego edo eskala bakoitzetik zein lanpostutarako lehian parte har daitekeen. Informazio horretan aipatzen dira lanpostuen deskribapen orokorra, zeregin ohikoenak, laneko ingurumen-baldintzak eta, orientazio gisa, zereginak betetzea eragozten duten ezintasunak (nolanahi ere, kasu zehatz bakoitza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Prebentzio Zerbitzuak ebaluatuko du).

4.– Eskabideak aurkeztea.

4.1.– Prozesuan onartua izatea.

Deialdi honetako hautaketa-prozesuren batean parte hartu nahi dutenek eskabide bana aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten kidego edo eskala bakoitzeko, oinarri espezifikoekin bat etorriz.

Onartuak izateko eta, hala dagokionean, hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek 1) eskabideko atal guztiak bete beharko dituzte, 2) eskabidea epe barruan aurkeztu beharko dute eta 3) ezarritako tasak ordaindu beharko dituzte. Gainera, eskatutako baldintza guzti-guztiak esandako epea bukatzen den egunean betetzen dituztela adierazi behar dute. Euskararen eta informatikaren ezaguerari dagokion baldintza, aitzitik, 9. oinarrian esan bezala adierazi beharko da.

4.2.– Eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik gutxienez egutegiko hogei (20) eguneko epean aurkeztu behar dira. Oinarri espezifikoetan zehazten dira epe horren datak eta orduak.

4.3.– Eskabideak aurkezteko era.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabidea Internet bidez egin beharko dute, helbide elektroniko honetan dagoen eredua betez: www.ivap.euskadi.net/ope.

3.5.– Requisitos específicos de participación en la modalidad reservada para personas con discapacidad.

Quienes concurran a plazas reservadas para personas con discapacidad, además de cumplir los requisitos de participación a los que se refiere la base 3.3, deberán:

a) Tener reconocida una discapacidad de grado igual o superior al 33% por el órgano competente de las Diputaciones Forales o el Imserso, a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

b) Acreditar su discapacidad, así como la compatibilidad entre su discapacidad y el desempeño de las tareas del puesto.

A título orientativo, en la dirección electrónica indicada en la base 6 se facilitará información sobre los puestos a los que se puede acceder desde cada cuerpo o escala. En esta información se incluirá una descripción general de los puestos, sus tareas más habituales, sus condiciones ambientales laborales y, orientativamente, las discapacidades invalidantes para su desempeño, sin perjuicio de que se evalúen por el Servicio de Prevención de la Administración General del País Vasco los casos concretos que puedan darse.

4.– Presentación de solicitudes.

4.1.– Admisión al proceso.

Quienes deseen participar en alguno de los procesos selectivos de la presente convocatoria deberán presentar una solicitud por cada cuerpo o escala en la que deseen participar, de acuerdo con sus bases específicas.

Para la admisión y, en su caso, tomar parte en las pruebas selectivas correspondientes, se deberá: 1) cumplimentar la solicitud en todos sus apartados, 2) presentarla en plazo y 3) abonar las tasas establecidas. Asimismo, deberá manifestarse que a la fecha de finalización del plazo señalado para su presentación se reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos, con excepción del conocimiento de euskera y de informática, en los que se estará a lo previsto en la base 9.

4.2.– Plazo de presentación de solicitudes y pago de tasas.

Las solicitudes para tomar parte en la convocatoria se presentarán en el plazo de al menos 20 días naturales a partir del día siguiente de la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco. En las bases específicas se determinarán las fechas y las horas límites de este plazo.

4.3.– Forma de presentación de solicitudes.

Las personas que deseen tomar parte en los procesos selectivos deberán realizar la solicitud a través de Internet, mediante la cumplimentación del modelo que se facilita en la siguiente dirección electrónica: www.ivap.euskadi.net/ope.

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzaren KZgune publikoetan egin daiteke. KZguneen zerrenda eta kokapena helbide elektroniko honetan ikusi daitezke: www.kzgunea.net.

6. oinarrian azaltzen diren IVAPeko bulegoetan ere bete daiteke eskabidea.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu daitezke eskabideak.

Posta-bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna jarri eta zigilua bota diezaien.

4.4.– Eskabidearen edukia.

Eskabideko atal hauek bete behar dira:

a) Prozesua zuzen kudeatzeko norberari buruz eskatzen diren datuak.

b) Zein txandetan parte hartu nahi den (irekian edo barne-igoerakoan). Ezinduentzat gordetako kupoaz baliatu daitezke ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, baina nolanahi ere txanda bakar batean parte hartu daiteke. Eskabidean aukerarik egiten ez bada edo aukera bat baino gehiago egiten bada kidego eta eskala berberarentzat, sarbide orokorreko txanda irekian sartuko da hautagaia.

c) Zein kidego edo eskalatan parte hartu nahi den.

d) Zein hizkuntza ofizial, euskara edo gaztelania, aukeratzen den oposizio-faseko hautaketa-probak egiteko.

e) Ezinduentzat gordetako modalitatean parte hartzeko aukera. Modalitate horretan parte hartu nahi dutenek eskabidean adierazi beharko dute hala egin nahi dutela eta, horrez gain, hautaprobak egiteko, denbora eta baliabideen aldetik nolako egokitzapenak behar dituzten adierazi behar dute.

f) Titulazio akademikoa.

4.5.– Eskabideak aurkezteagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko era.

Deialdi honetako 4.1 oinarriak aurreikusitako baldintza betetzeko, eta eskabideak aurkezteko erabili den moduaren arabera, ordainketa honela egingo da:

Eskaera Internetez eginez gero, ordainketa ere bide beretik egin daiteke, banku-sukurtsalera joan beharrik gabe. Ordaintzeko era hau eguneko 24 orduetan erabil daiteke. Visa, Maestro edo Mastercard txarte-

La solicitud vía Internet se podrá realizar a través de los centros públicos KZ-Gunea del Gobierno Vasco. El listado de centros KZ-Gunea y su ubicación se encuentra disponible en la siguiente dirección electrónica: www.kzgunea.net.

Así mismo, la solicitud podrá cumplimentarse acudiendo a las dependencias del IVAP indicadas en la base 6.

No obstante, también podrán presentarse en cualquiera de los lugares que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las solicitudes que se entreguen a través de las Oficinas de Correos deberán ir en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el personal funcionario de Correos antes de su certificación.

4.4.– Contenido de la solicitud.

Deberán cumplimentarse los siguientes apartados de la solicitud:

a) Datos personales solicitados, para la correcta gestión del proceso.

b) Turno por el que se desea participar (libre o de promoción interna). Sólo se podrá participar en un único turno, independientemente de que se pueda hacer uso del cupo de reserva para personas con discapacidad, si se dispone de los requisitos establecidos para ello. En el caso de que no constara expresamente la opción deseada, o constara más de una opción válidamente formulada para el mismo cuerpo o escala, se considerará que se opta por el turno libre, modalidad de acceso general.

c) Cuerpo o escala a la que se concurre.

d) Idioma oficial, euskera o castellano, en que se desean realizar las pruebas selectivas de la fase oposición.

e) Opción de participar a través de la modalidad reservada para personas con discapacidad. Quienes deseen participar a través de esta modalidad deberán indicarlo en su solicitud, así como las adaptaciones y los ajustes de tiempo y medios que consideren oportunos para la realización de las pruebas selectivas.

f) Titulación académica.

4.5.– Forma de pago de tasas por presentación de solicitudes.

A los efectos del cumplimiento del requisito que prevé la base 4.1 de esta convocatoria y dependiendo de cómo se presente la solicitud, el pago podrá realizarse de las siguientes maneras:

En el caso de formalizar la instancia por Internet existe la posibilidad de efectuar el pago utilizando esta misma vía, sin necesidad de acudir a la sucursal bancaria. Esta modalidad estará operativa las 24

lekin ordaindu daiteke edo, bestela, erakunde hauen banka elektronikoko zerbitzuaren bidez: BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa), Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, La Caixa, Bankoa eta BBVA. Hala ere, ondorengo paragrafoan adierazitako banku-sukurtsaletan bertan ere egin daiteke ordainketa.

Ordainketa banku-sukurtsaletan bertan egiteko, erakunde hauetara joan behar da: BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa), Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, La Caixa, Bankoa eta BBVA. Ordainketa egiteko, sistemak emandako jaso izanaren agiria edo bertan azaltzen diren datuak aurkeztu beharko dira. Jaso izanaren agiriek barra-kodea ere badaukatenez, irakurgailu optikoa duen kutxazain automatikoaren bidez edo eskuzko datu-eskuratzearen bidez ordaindu daiteke.

4.6.– Tasak ez ordaintzeak dakartzan ondorioak.

Hautagaiak ez baditu tasak ordaintzen eskabideak aurkezteko epearen barruan, prozeduratik kanpo geratuko da. Bestalde, ordaindutako zenbatekoan akatsen bat baldin badago, 10 egun balioduneko epea emango zaio hautagaiari akatsa zuzendu dezan.

Tasa ordaintzea eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; eskabidea behar bezala eta emandako epearen barruan aurkeztu behar da, 4.2 eta 4.3 oinarrietan adierazi bezala, alegia.

4.7.– Hautaketa-prozesuko datuen babesa eta kudeaketa.

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko eta langileak aldi baterako kontratatzeko nahiz bitarteko funtzionarioak izendatzeko eratzen diren lan-poltsak kudeatzeko bakarrik erabiliko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz indarrean dauden akordioen bidez arautuko dira lan-poltsa horiek. Fitxategiaren erabilera eta funtzionamendua guztiz bat etorriko da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezarritakoarekin.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna, eta fitxategiko datuak eskuratu, zuzendu, datuen aurka azaldu eta deuseztatzeko, Funtzio Publikoaren zuzendariarengana jo behar da, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz helbidera.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenen informazio-eskubideak bermatzeko (HAAJren eta APEren azaroaren 26ko 30/1992 Legea), prozesuko

horas del día. El pago podrá realizarse con cualquier tarjeta Visa, Maestro o Mastercard, o a través del servicio de banca electrónica de las siguientes entidades: BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa), Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, La Caixa, Bankoa y BBVA. No obstante, el pago también podrá efectuarse acudiendo a las sucursales bancarias indicadas en el párrafo siguiente.

El pago presencial se podrá realizar en las sucursales de las siguientes entidades: BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa), Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, La Caixa, Bankoa y BBVA. Para ello, deberán presentar el acuse de recibo o los datos consignados en él, que habrán sido facilitados por el sistema. Dado que los acuses de recibo incluyen código de barras, el abono puede efectuarse a través de cajero automático con lectura óptica o captura de datos manual.

4.6.– Efectos de la falta de abono de tasas.

La falta de abono de las tasas dentro del plazo de presentación de solicitudes supondrá la exclusión del proceso. No obstante lo anterior, el error en la cantidad abonada dará lugar a requerimiento a fin de que en el plazo de 10 días hábiles se subsane el error.

En ningún caso la presentación y pago de la tasa podrá sustituir el trámite de presentación de la solicitud en tiempo y en forma, de acuerdo con lo expresado en las bases 4.2 y 4.3.

4.7.– Protección y gestión de los datos del proceso selectivo.

Toda la información facilitada en las solicitudes será incluida en un fichero cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo y a la gestión de las bolsas de trabajo que se creen para la contratación temporal y nombramiento de personal funcionario interino, reguladas por los Acuerdos vigentes, sobre selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. El uso y funcionamiento de este fichero se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

El responsable de este fichero es la Dirección de Función Pública y los derechos de acceso, rectificación, oposición y cancelación se ejercerán ante la Directora de Función Pública c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Con el objeto de garantizar los derechos a la información de las personas participantes en los procesos selectivos (Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de

zerrenden kontsulta Internet bidez egin ahal izango da, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen helbide elektroniko honetan: www.ivap.euskadi.net/ope.

2008ko EPEtik eratorritako hautaketa-prozesuetako deialdietan eskaerak aurkezten dituztenek, beraien datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztutako moduan eta adierazitako helburuarekin erabiliak izateko baimena ematen dute.

Eskabidean azaltzen diren helbide, telefono eta posta elektronikoak balekotzat joko dira. Idatziz jartzerakoan egindako akatsak eta edozein aldaketa epaimahaiari jakinaraztea eskaeragilearen erantzukizuna izango dira.

5.– Epaimahaia.

5.1.– Osaera.

Epaimahaiburuak, 7 epaimahaikidek, idazkariak eta bakoitzaren ordezkoek osatuko dute epaimahaia. Iragarritako plazei dagokien lanbide-arloa ondo ezagutu eta epaimahaikide gisa egin beharreko zereginak ondo betetzeko prestakuntza egokia izango dute, eta emakume eta gizonenen kopurua orekatua izango da.

Epaimahaiak komeni dela uste badu, adituen aholkuak eskatu ahal izango ditu. Aholkulariek beraien espezialitate teknikoaren alorreko aholkularitza eman besterik ez dute egingo epaimahaiarekin lankidetzan ari direnean.

Epaimahaikide-lana norberak egingo du beti, eta ezin izango da inoren izenean edo inoren ordezkari modura jardun.

5.2.– Izendapena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren agindu bidez egingo dira epaimahaiak osatzen dituzten kideen izendapenak. Izendapenak eta onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak egun berean argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

5.3.– Parte ez hartzea eta errefusatzea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikuluan aipatutako egoeraren batean dauden epaimahaikideek ez dute prozesuan parte hartuko eta hala jakinaraziko diote Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari. Berdin jokatu beharko dute deialdia argitaratu aurreko azken bost urteetan hautagaiak hautaketa-prozesuetarako prestatzen aritu izan diren epaimahaikideek ere.

Aurreko kasuetako bat gertatzen denean, interesdunek ere errefusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

RJAP y PAC), la consulta de los diferentes listados del proceso se podrán realizar a través de Internet en la dirección electrónica del Instituto Vasco de Administración Pública: www.ivap.euskadi.net/ope.

Quienes presenten solicitudes en las convocatorias de los procesos selectivos derivados de la OPE 2008 consienten que sus datos de carácter personal sean tratados en la forma y al objeto señalado en estas bases y en las bases específicas de cada convocatoria.

El domicilio, los teléfonos y el correo electrónico que figuren en la solicitud se considerarán válidos. Los posibles errores en su consignación, así como la comunicación al Tribunal de cualquier cambio que se produzca en los mismos es responsabilidad exclusiva de quien realiza la solicitud.

5.– Tribunal.

5.1.– Composición.

El Tribunal estará compuesto por Presidente o Presidenta, 7 vocales y Secretario o Secretaria, y sus correspondientes suplentes. Asimismo, tendrá una representación equilibrada de mujeres y hombres con un amplio conocimiento del área profesional en la que están encuadradas las plazas que se ofertan y con la preparación adecuada para realizar las tareas que exige formar parte del tribunal.

El Tribunal podrá disponer, si lo considera conveniente, del asesoramiento de especialistas. Dichas personas, en su colaboración con el Tribunal, se limitarán a asesorar en sus especialidades técnicas.

La pertenencia a los Tribunales será siempre a título individual, no pudiendo ostentarse ésta en representación o por cuenta de nadie.

5.2.– Nombramiento.

El nombramiento de las personas que formen parte de los Tribunales se realizará por Orden de la Consejera de Justicia y Administración Pública. Los nombramientos se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco, junto con la relación definitiva de personas admitidas y excluidas.

5.3.– Abstención y recusación.

